

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZIGOITIKO UDALA

Zigoitiko Udalaren egoitza elektronikoa, Zigoitiko Udalaren titulartasuneko, sortzeari buruzko iragarkia

Alkatetzaren 2020ko irailaren 23ko 402 zenbakiko Ebazpenaren bidez, honako hau erabaki zen:

Kontuan hartuz Toki Araubidearen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.bis.4) artikulua, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legeak ezartzen dutenari jarraituz administrazio elektronikoen gaian udalari eska daitezkeen betebeharrak, besteak beste administrazio publikoekin harremanak elektronikoki izateko eskubide zein betebeharrari, espediente elektronikoi eta erregistro elektronikoi dagozkienak.

Ikusita Arabako Foru Aldundiaren eta Zigoitiko Udalaren artean 2011ko maiatzaren 2an sinatutako lankidetzaz hitzarmena Zigoitiko Udala Arabako Lurralde Historikoko udalen egoitza elektronikoko partekatua txertatzeko. Izan ere, hitzarmen horren lehen klausulak dio Zigoitiko Udala egoitza partekatua <https://udalnegoitza.alava.net/zigoitia> atxikitzen dela, foru erakundearekin lankidetzan.

Ikusita Zigoitiko Udalak administrazio elektronikorako plataforma bat jartzeko zerbitzuen kontratazioa egin duela, udal kudeaketa elektronikoen modernizazioa sustatzeko asmoz. Plataformak egoitza elektronikoa, erregistroetan laguntzeko bulegoa, dokumentuak kudeatzeko sistema, eta fitxategi eta sinadura elektronikoa biltzen ditu. Ondorioz, egoitzaren helbidea <https://zigoitia.egoitzaelektronikoa.eus> izatera pasatuko da, eta egoitza elektronikoko partekatua helbidea (<https://udalnegoitza.alava.net/zigoitia>) desaktibatu egingo da.

Arestian azaldutako gertatzezko aurrekariak eta zuzenbideko oinarriak kontuan, eta Toki Araubidearen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.2) artikulua esleitzen dituen eskumenak erabiliz, hauxe

ERABAKI DUT

LEHENA. Zigoitiko Udalaren egoitza elektronikoa sortzea, <https://zigoitia.egoitzaelektronikoa.eus> URL helbidean eskura egongo dena, gardentasun, publikitate, erantzukizun, kalitate, segurtasun, eskuragarritasun, irisgarritasun, neutraltasun eta elkarreragingarritasun printzipioei lotuta.

BIGARRENA. Zigoitiko Udala desaktibatu egingo da Arabako Lurralde Historikoko egoitza elektronikoko partekatutik, <https://udalnegoitza.alava.net/zigoitia> URL helbidea duenetik.

HIRUGARRENA. Erabaki honen berri emango zaio Arabako Foru Aldundiaren Toki Administrazioaren eta Lurralde Oreka Sailari, <https://udalnegoitza.alava.net/zigoitia>, helbidearen deskonexioa kudeatzearen ondorioetarako.

LAUGARRENA. Erabaki hau Zigoitiko iragarki ohean eta ALHAOn argitaratuko da.

Ondategin, 2020ko irailaren 24an

Alkatea

JAVIER GORBEÑA GARCÍA